



Por una sociedad sin exclusiones
Bazterturik gabeko gizarterantz

Txostena 2017

A black and white photograph showing the lower legs and feet of a group of people walking. Their shadows are cast long and dark on the light-colored pavement. A large, semi-transparent green and blue gradient rectangle is overlaid on the bottom half of the image.

BAZTERTURIK
GABEKO
GIZARTERANTZ

Erakunde publiko finantzatzaileak



Departamento de Empleo,
Inclusión social e Igualdad
Enplegua, Gizarte Inklusioa eta
Berdintasuna Sustatzeko Saila



Enplegu eta Gizarte
Politiketakoa Saila
Departamento de Empleo
y Políticas Sociales



Osasun Saila
Departamento de Salud



Bilboko Udala
Udal Etxebizitzak
Ayuntamiento de Bilbao
Viviendas Municipales



Gizarte Ekintza Saila
Área de Acción Social
Osasuna eta Kontsumoa
Salud y Consumo

Erakunde laguntzaileak



Banco de Alimentos de
Bizkaia
Bizkaiko Elikagaien
Bankua



Itunak, sareak eta foroak

Itunak:



OSASUN MENTALAREN
SAREA



Sareak:



Foroak:



HIRUGARREN SEKTORE
SOZIALEKO ADIERAZLEEN
FOROA

Auzoetako erakundeak eta elkarteak

Otxarkoaga

Merkatari Elkarteak, Irola Irratia, Txirula, Imaginatu Otxarkoaga,
Jai Batzordea, Andre ta Jabe

Errekalde

Elkarteen Azoka, Kultura Ikasgela Proiektua, Errekalden kaleratzerik ez,
Jai Batzordea, Gure auzoan ez

Uribarri

Uribarri auzolanean, Jai Batzordeak: Aldapan Gora, Tanttaka, Aletu

jarrai gaitzazu:



Boluntariotzari bizi berria ematen

Bizitegin ez da gaurko kontua boluntariotzaz jardutea; izan ere, boluntario talde baten ekinetik sortu zen gure proiektua, eta bide horretatik jarraitu zuen lehen urteetan. Gerora, jardun hura profesionalizatzeko behar gero eta handiagoak eta hari intentsitate eta jarraitutasun handiagoz heltzeko beharrak berarekin ekarri zuen langile kopuruak gora egitea. Inoiz ez da galdu boluntariotzaren presentzia, eta beti izan da hari indarra emateko gogoia, baina onartu beharra dago erakundean zuen pisua galtzen joan zela.

Azken bi urteotan, egoera leheneratzeko beharraz jabetu gara, uste baitugu boluntariotza suspertu behar dugula Bizitegik etorkizunik izango badu. Hori nola egin hausnartzean, ez dugu pentsatu hasierako formetara itzuli behar dugunik. Egoera aldatu da, eta boluntario-figura berriak asmatu behar ditugu, egungo erronkei aurre egiteko.

Duela urtebete pasatxo, Bazkide Asanbladak bere gain hartu zuen eskakizun berriei erantzungo zien boluntariotza-plan berria bultzatzeko ekimena; horretarako, hausnarketa-prozesu bat jarri zuen abian, ikusteko zer ezaugarri izan behar lituzketen boluntarioek. Ideia eragileetako baten arabera, boluntarioen egitekoak ez luke mugatu behar zeregin zehatzetan laguntzera. Ez zen zeregin hori gutxietsi nahi, zinez balioesten baita, baina esparru zabalago bat genuen buruan: boluntarioek Bizitegiren eta gizartearen arteko lotura izan behar lukete, eta orain artekoa baino estuagoa, gainera. Bizitegik, bere aldetik, bere proiektua lanerako espazio erakargarri moduan eskaini beharko lieke gizarte solidarioago baten alde borrokan dihardutenei (haien kopurua gora doa). Hortik sortu ziren etorkizuneko boluntariotzari forma emateko erronkak eta iradokizunak.

Alde batetik, Bizitegik aintzat hartu behar du partaidetza era hori preziatua eta desiragarria dela, eta, beste aldetik, saiatu egin behar du helburu berri horretara moldatzen, helburu horrek berarekin baitakar bere jardunbidea boluntariotzaren kultura berri horretara egokitzea.

Boluntariotza indartzeko, zenbait arlotan egin behar da aurrera: a) eguneroko bizitzako zereginetan, b) proiektu berrien sustapenean, eta, azkenik, c) lan- eta hausnarketa-taldeetan eta erakundearen organoetan izan beharreko parte-hartzean. Horretarako, hiru boluntariotza maila identifikatu ziren, konpromisoaren izaera kontuan hartuta: i) Bizitegiren proiektuarekiko konpromisoa hartu dutenak, eta ekintza-planei eta –estrategiei buruzko hausnarketa prozesuekiko atxikipen estua erakutsiz parte hartzen dutenak; ii) zenbait ekintzekiko konpromisoa hartu dutenak, hala nola prestakuntzarekiko, aisialdiarekiko eta bidelaguntzarekiko, edo dedikazio jarraitua eskatzen duten proiektu jakinekiko konpromisoa hartu dutenak; eta iii) dedikazio mugatua eskatzen duten laguntza-zeregin espezifikoekiko konpromisoa hartu dutenak. Erabiltzaileak boluntario izan daitezkeela ere pentsatu zen; izan ere, jada eman dira urratsak ildo horretan, Pausoka ekimena esaterako. Aukera asko eskaintzen dituela ikusirik, gai hori zabalik utzi da.

Modalitate horien guztien beharra dugu, eta guztietan jarri nahi dugu zor zaien arreta. Helburu horrekin lan egiteak, gainera, berarekin dakar Bizitegin kultura asoziatibo berri bat sortzearen aldeko apustua egitea, boluntarioak erakartzeko, eta haiek proiektuan erabat integratzeko eta erantzunkide sentiarazteko. Horregatik guztiagatik, ildo horretatik joango diren ekimenak abian jartzeko lanean ari gara. Batzuk abian dira dagoeneko, hala nola Aholkularitza Batzordea, eta Asanbladak eta Zuzendaritza Taldeak beren gain hartutako konpromisoak.

2018an bultzada bat eman nahi diogu Bizitegiren konpromiso estrategiko horri, badakigulako horretan doala gure proiektuaren etorkizuna, bai eta haren bizitzeko indarra eta erantzuteko gaitasuna ere. Gizarteari ateak irekitzea, gure jardunarekin bat egin dezan, horixe da zer boluntariotza nahi dugun ulertzeko gakoa.

BIZITEGIk 1980an ekin zion bere jardunari, Bilboko Otxarkoaga auzoan, komunitate-lana oinarri zuela. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitate aitortpena jaso zuen.



"Bizitza beti aurrera egitea da". Mendizaletasuna, aisialdirako aukera inklusiboa

XEDEA

Elkarte-izaerako erakunde bat gara, bazkideek, profesionalek, erabiltzaileek eta boluntarioek osatua, eta Bizkaian baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak eta bazterturik dauden pertsonak gizarteratzea da gure lana. Horretarako, esku hartzeko prozesuak egiten ditugu, pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko, eta, horrez gainera, sentikortzeko eta salatzekeo ekintzak egiten ditugu, gizarte bidezkoago bat eraikitzekeo kontzientzia sorraraztekeo. Xede hori betetzeko, pertsona da funtsezkeo balioa, eta komunitatea da pertsonaren garapenerakeo lekua.

IKUSPEGIA

Honelakeo erakundea izan nahi dugu:

- **Sendoa eta parte-hartzailea**, proiektua osatzen duten pertsona guztien konpromiso handia izango duena eta partaidetzazko gobernantza baten bidez jardungo duena.
- **Eraginkorra eta iraunkorra**, emaitza objektiboak eta neurgarriak lortuko dituen, arduraz erabiliko dituen eskura dituen baliabideak, kudeaketa aurreratuko eredu baliatuko duena eta finantzatze-bideak dibertsifikatu eta berriak bilatuko dituen; betiere, bere xedea beteko duela eta eragin luzea izango duela ziurtatzeko.
- **Ilusioz betea eta berritzailea**, partaide guztien atxikitze gogotsua eta ilusiozkoa behar duena, sormenaren bidez jardun-modu berriak eratzeko.
- **Erreferentziazkoa gizartearen**, onartua eta eragitekeo gaitasuna izango duena, gizartearentzat erabilgarri izango diren zerbitzuak emango dituen, itun iraunkorrak landuz administrazioekin eta gure helburu eta balio berberak dituzten erakundeekin.
- **Pertsona boluntarioen hartzailea**, bazterketaren aurkako borrokan haien konpromiso pertsonala eta soziala eskaintzen duten pertsonen ekarpenentzat gune eragingarriak sortzeko gai izango dena.

BALIOAK


- **Partaidetza**, proiektuaren funtsezkeo balioa da, pertsona aintzatetsi eta haren protagonismoa nabarmen-tzen baititu. Pertsona orok elkartearen jardunean eta komunitatean partaidetza gogotsua izan dezan sus-tatzen eta balioesten dugu, norberaren egitekeoetatik abiatuta, proiektu komun baten kontzientzia izanda.
- **Elkartasuna**, guztion interesaren lan egitean ulertzen dute pertsonen haien gaitasunek zentzua eta gizarte-erabilgarritasuna erdiesten dutela.
- **Gardentasuna**, zintzotasuna ziurtatzeko estrategia, kudeaketa-lan eta esku-hartzeen prozesuak betetzean.
- **Ardura**, pertsona guztiek jarrera arduratsua izan behar baitute proiektuan eta, gainerakeo pertsonekin bate-ra, taldekeo eta elkartekeo prozesuetan parte hartzean.

Taldea



E: emakumeak; G: gizonak

Organigrama




- Zuzendaritza-taldea
- Arduradunen lantadea
- * Prozesu eragileak

Gizarte-ekintzarako ereduak

Bizitegiren xedek, ikuspegiak eta balioek definitzen dute gure lan-esparrua.

Hiru alderdi horietan oinarrituta eman diogu forma gure gizarte-ekintzarako ereduari, eta horretan islatu nahi izan dugu nor garen, zer sentitzen dugun, egunez egun nola bizi garen, zer lortu nahi dugun...

Eta, eraiki ere, guztion artean eraiki dugu, hausnarketa-prozesu ireki baten baitan. Prozesu horretan, hitzekin ez ezik, irudi batekin ere pentsatu eta adierazi dugu zer garen... eta zer helburu dugun.



Laburbiltze aldera, esan dezakegu pertsona sentikorrek garela eta emozioak partekatzen ditugula, beste batzuekin lotuta gaudela elkarrekiko lotura-harremannen bidez. Bidelagun gaituzte eta bidelagun ditugu, eta harreman parekideak ditugu, talde bereko kideak baikara guztiok. Pertsona ororen duintasuna balioesten dugu, epaitu gabe, eta ibilbide komun bat bultzatzen dugu, nork bere erritmoa eta helburua hautatzeko aukera emango duena.

Etengabe mugitzen gara, hobetzeko. Zubi bat izan nahi dugu, kalitatezko bizi-proiektuei oztupoak gaintitzen laguntzeko. Bizimodu onaren prozesuak sustatzen ditugu komunitate baten baitan, han, erantzunkide baikara. Eredua emanez, elkarrekin biziz, begiak irekitzen lagunduz, eta egoera bidegabeak salatuz, lanean dihardugu, gizarte hobe baten alde.



"Ibilian" aisialdiko jarduera




Etterik gabeko emakumeen pisua

Gure bidelaguntza-esparruak

Pertsonen bidelagun gara, haien bizitzako zenbait esparrutan:

- **Banako esparruan**, norberaren ezaugarri pertsonalek markatzen dutelako nola ulertzen dugun mundua, zer jarrera hartzen dugun inguruan dugunaren aurrean, zer-nolako harremanak ditugun beste pertsonekin eta zenbateko gaitasuna dugun ezbeharrei aurre egiteko. Labur esanda, horiek dira gure nortasuna eraikitze oinarriak.
- **Taldean**, beste pertsona batzuekin bizi garelako egunez egun.
- **Laguntza-egituretan**, harremanak izateko egitura bat eskaintzen digutelako, eta gure eguneroko bizitzan garrantzi handiko elementuak eskura jartzen dizkigutelako: hezkuntza, laguntza emozionala...
- **Komunitatean**, esparru horretan gauzatzen baitira gizartearekin ditugun harremanak. Gizartearen parte izateko aukera ematen digu, guztion onerako ekarpenak egiteko eta gizartean bizitzaren onuraz gozatzeko.



Jarduera- eta prestazio-katalogo zabala dugu, esparru horietako bakoitzeko bidelaguntza bultzatzeko eta indartzeko:

- Banako esparruan, oinarritzko beharrak asetzeko jarduerak egiten ditugu, bai eta norberaren eskubideen eta betebeharren jabe egitekoak, lan mundura sartu aurrekoak, prestakuntzakoak, prestakuntza arloan orientazioa ematekoak eta eguneroko bizitzakoak ere. Horiez gain, gaitasun teknikoak, kognitiboak, instrumentalak eta osasunari lotutakoak lantzen ditugu.
- Taldeko esparruan, loturak sendotzeko jarduerak egiten ditugu, baita eguneroko bizitzakoak,

aisialdikoak, ludikoak eta teknikoak ere. Horiez gain, gaitasun sozialak, kognitiboak, instrumentalak eta osasunari lotutakoak lantzen ditugu.

- Aurrez aipatutako jarduera horietako asko zerbitzuen testuinguruan gauzatzen dira, eta, horrek areagotu egiten du haien eragina. Asanbladak ere egiten ditugu, partaidetzarako elementu eta topagune egoki-egokiak direla uste dugulako.
- Komunitatearen esparruan, bestalde, haren aldeko laneko eta hari ekarpenak egiteko jarduerak egiten ditugu gero eta gehiago, bai eta egoera bidegabeak salatzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak ere.



Zenbatu. "Antipatriarka" antzezlanaren zati bat



Ireki (asanblada)


Bidelaguntzaren emaitzak

	LAGUNTZA JASO DUTENAK						EGOERA HOBEAN EDO BEREAN DAUDENAK (%)						BATEZ BESTEKO AURRERAPENA (%)						LORTUTAKO HELBURUAK (%)					
	2016			2017			2016			2017			2016			2017			2016			2017		
	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.	E	G	Guz.
BATEZ BESTEKO OROKORRA	51,1	46,5	47,4	50,2	46,4	47,3	85	79	81	88	90	89	0,46	1,09	0,97	0,79	0,41	0,50	69,6	69,9	69,8	77,4	71,3	72,9
E konomia, lana, bizilekua	51,3	46,0	47,1	50,0	43,6	45,0	89	91	91	95	93	94	1,20	1,70	1,60	1,0	0,7	0,8	75,0	70,6	71,5	75,6	71,7	75,7
B izikidetzatza	50,4	44,6	45,8	47,7	44,5	45,2	89	83	84	100	90	93	0,50	1,20	1,10	0,8	0,7	0,7	63,4	72,2	70,5	74,7	74,6	74,6
P ertsona	42,7	40,3	40,8	42,2	41,3	45,5	96	91	92	98	92	93	0,50	1,10	1,00	0,9	0,4	0,6	69,8	62,4	63,7	83,0	59,6	66,9
O sasuna	54,7	53,4	53,7	56,0	53,2	53,8	89	85	85	86	85	86	0,30	0,70	0,70	0,7	0,1	0,3	76,8	70,0	71,2	77,5	70,5	72,2
G izartea	58,1	49,3	51,1	57,4	50,3	51,9	96	93	94	98	91	93	-0,30	0,90	0,70	0,6	0,2	0,3	50,0	74,9	73,0	80,9	73,5	74,9

E: emakumeak; G: gizonak

Bizitegik **banako-plangintzarako eredu**a erabiltzen du pertsonen bidelaguntza-prozesuak eta prozesu horiek haien bizitzetan duen inpaktua planifikatzeko eta garatzeko, bai eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko ere.

Pertsonak ebaluatzean, bost esparru hartzen ditugu kontuan: ekonomiari, lanari eta etxebizitzari lotutakoa;



bizikidetzari lotutakoa; esparru pertsonala; gizarteari eta osasunari lotutakoa; eta, azkenik, gizarteari hertsiki lotutakoa. Horiek 19 dimentsiotan banatzen ditugu, bakoitzari modu espezifikoan heldu ahal izateko.

Adierazle horiek behar bezala segmentatu eta aztertu ostean, honako ondorio esanguratsu hauek ateratu ditugu, 2017ko planei lotuta:

- Bizitegiko kideen iritziz, esparru pertsonala (100etik 42) eta bizikidetzari lotutakoa (47) dira makalenak.
- Gizarteari eta osasunari lotutako esparrua da indartsuena eta egonkorrena (100etik 54).
- Dimentsioak aztertzen baditugu, berriz, argi ikus daiteke ekonomia- eta lanbide-dimentsioak direla puntu gutxien jaso dituztenak (41 eta 36, hurrenez hurren). Eta bi-biak funtsezkoak dira bazterketa-egoeretan.
- Osasun-esparruko helburuak balioetsi dituzte Bizitegiko kide gehienek (guztizkoaren % 79k). Alabaina, ez da hainbeste aurreratu (0,20 aurreratu baita, batez bestekoa 0,50 izanik).

Hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatu dugu, baitetik, beharbada gehiegi arduratzen garela gaixotasunekin lotutako alderdietan, eta, bestetik, alderdi hori egoera nahiko onean eta egonkorrean dagoela.

Eta hori egiten badugu, litekeena da erabiltzaileak gaixotzat hartzea pertsonatzat hartu beharrean.

Hori horrela izanik, gero eta garrantzi handiagoa ematen diogu partaidetzari, fokua pertsonen aukeretan jartzen duelako, haien gabeziak edo gaixotasunetan jarri beharrean, eta, horrez gain, haiek baliozko pertsona gisa ikusten laguntzen digulako (eta dielako), ekarpenak egin baitiezazkiekete beren buruari eta gainerakoei.

Sentsibilizazioa eta Partaidetza


Beldur handirik gabe esan dezakegu **partaidetza** dela gizarteratze-prozesu ororen azken helburua. Eta hori zenbait esparrutan gertatzen da:

- **Pertsona bakoitzaren bizitzan**, berarekin ekarzen dituelako autonomia, erabakiak hartzeko gaitasuna eta norberaren erantzukizuna.
- **Hurbileko harremanen testuinguruan**, harremanak sortzen laguntzen duelako, eta horiei esker gizartearen laguntza lortzen delako, bai esparru emozionalean eta bai operatiboan. Horrez gain, gurekin bizi direnei laguntzeko aukera ematen digu, eta horrek autoestimua indartzen du.
- **Komunitatean**, aukera ematen digulako haren parte garrantzitsu bat izan eta guztion onerako ekarpenak egiteko, bai eta gure gizarte honetan bizitzearen abantailez eta zerbitzuez gozatzekoa ere.

Partaidetza, bestalde, zenbait mailatan eman daiteke: talde batean egon gaitzeko, beste batzuekin batera, eta taldeko elementu bat izan besterik gabe, edo helitzen diegun partaidetza-prozesuen plangintzan, ebaluazioan eta hausnarketan parte har dezakegu, guk geuk aukeratzeko zer **partaidetza-eredu** nahi dugun.

Bizitegi bazterketaren aurka egiteko eta hura jasaten duten pertsonak gizarteratzeko sortu zen, eta, hortaz, aparteko garrantzia ematen diegu alderdi hauei:

- **Sentsibilizazioari**, bazterketak estigmatizatu egiten duelako, eta baztertuta daudenak *desberdin* egiten dituelako. Hori horrela izanik, elkarrekin harremanetan jartzen eta elkar ezagutzen laguntzen diguten hainbat ekintza egiten ditugu, hainbat esparrutan (hezkuntzan, artean, auzoan, hezkuntzan), lagungarriak baitira estigma horren zama nabarmen arintzeko.
- **Salaketari**, bazterketa-egoeran dauden pertsonen bidegabekeriak pairatzen dituztelako. Gizartearen ardua da inor egoera horretan ez egoteko inguruabarrak sortzea. Hori horrela izanik, salaketa-kanpainak antolatzen eta bultzatzen ditugu, batez ere etxegabeek bizi dituzten egoera kaxkarrak agerian jartzeko.
- **Parte-hartze komunitarioari**, komunitatean bizi garelako, komunitatearen bitartez jartzen garelako harremanetan munduarekin, eta hartzeko eta emateko aukerak eskura jartzen dizkigulako. Komunitate-loturak ahulune bat bizi dutela uste dugu, eta, horrenbestez, auzoko harremanak bultzatze aldera lan egin behar dugula, auzoko bizitza aktiboa sustatuz eta Bizitegi osatzen dugun guztiok harekin bat eginez.




Korrikaren aldeko mannequin challenge erronka



Berdintasunaren aldeko eguna. Otxarkoaga



Bizitegi, Go Otxarkoaga saria jasotzen



Homeless Film Festival jaialdia. World Ganchito

Gizarteratzeko parte hartzen

Errekaldeko elkartearen azoka

Parte izaten



Auzoetako jaiak

Elkarrekin ospatzen



Uribarri Eguna

Auzoa indartzen



Korrika

Euskara sustatzen



Osasun Mentalaren Munduko Eguna

Estigmak ezabatzen



Errekalden kaleratzerik ez

Etxegabetzeen aurkako plataforma



Partaidetza kontsultiboa

Osasunday

Osasuna auzoan sustatzen




Partaidetza soila



Auzolana

Auzoa egiten



Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna

Salatzen



Athletic Fundazioa

Gure kulturaren parte izaten



Beste Bi

Salatzen



Pausoka

Auzoaren ateak irekitzen



Sentsibilizazioa ikastetxeetan

Sentsibilizatzen



Partaidetza proiektiboa

METAPARTAIDETZA

Txikigunea

Auzko bizitzari ekarpenak egiten



Bilboporrak

Gure oporraldiak prestatzen



Zenbatu

Antzezlanen bitartez sentsibilizatzen



Homeless Film Festival

Zinearen bitartez sentsibilizatzen



JaiKomitea

Ospatzen



Bizitegiren laguntza-sarea

ETXERIK GABEKOAK

Eguna joan eta eguna etorri
Bilbon kale gorrian bizi diren
pertsonekin lan egiten dugu.

MENDEKOTASUNAK

Droga-mendekotasuna
edo eritasun mental larriak
dituztenekin lan egiten dugu.

URIBITARTE

83 plaza



BILBO

ELEJABARRI



5 plaza

HERNANI

ERREKALDE



25 plaza

PEÑASKAL



15 plaza

BIZIMODU INDEPENDENTEARI EUSTEKO LAGUNTZA



plaza
kop. pertsona
kop.

(2) IREKI 12 8 (2E, 6G)

EGUNEKO ZENTROAK

136 plaza

272 pertsonari laguntza
(49E, 223G)



Normalizazioa eta birgizarteratzea helburu hartuta, espazioak eta jarduerak eskaintzen ditugu, erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta bertakotasun- eta afektibitate-loturak sortzeko.

	plaza kop.	pertsona kop.
Onartu. Esk. apala	15	109 (9E, 100G)
(2) Errekalde	25	45 (7E, 38G)
(2) Uribarri	20	30 (3E, 27G)
(3) 105	8	12 (7E, 5G)
(2) (3) Errehabilitazioa	14	16 (6E, 10G)
(2) (3) Irumineta	30	35 (11E, 24G)
(2) (3) Zizeruene	24	25 (8E, 17G)

E: emakumeak; G: gizonak

HITZARTUTAKO ZERBITZUAK: (1) Udal-zerbitzua. Bilboko udala (2) Bizkaiko Foru Aldundia (3) Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
2017an HARTUTAKO PERTSONEI BURUZKO DATUAK

OSASUN MENTALA

Arazo nagusizat eritasun mental larriak dituztenekin lan egiten dugu.

URIBARRI



20 plaza

ATERPEA

83 plaza



Oinarrizko beharrianak asetzeko, higie-
nea bermatzeko eta kalteak arintzeko; bai
eta etxerik gabekoen kolektiboaren bizi-
kalitatea hobetzeko ere.

plaza pertsona
kop. kop.

(1) Udalaren Gaueko Aterpe Zerbitzua 83 362 (78E, 284G)



OTXARKOAGA



76 plaza



54 plaza



MINA DEL MORRO



6 plaza



6 plaza

URAZURRUTIA



KOMUNITATEAN ETA GIZARTEAN ESKU-HARTZEA

Bilbon kale gorrian bizi diren pertsonen laguntzen diegu.

pertsona
kop.

(1) Klean esku-hartzeko taldea 447 (80E, 367G)

(1) Hezkuntza-laguntzarako taldea (Elejabarriko Udal Aterpetxea) 908



BIZILEKUA

71 plaza

101 pertsonari laguntza
(30E, 71G)

Bizileku duinak eta inguru egoki bat bermatzeko behar diren zerbitzuak eskaintzen ditugu, bizikidetza eta bizi-kalitate ezin hobea sustatzeko.

plaza pertsona
kop. kop.

(2) (3)	Etxe-sare babestua	42	46 (14E, 32G)
(2) (3)	Iruminetxeko egoitza	7	8 (1E, 7G)
(2)	Mina del Morro	6	12 (7E, 5G)
(2)	Peñaskal	6	11 (1E, 10G)
	Etxegabeentzakoak	10	15 (4E, 11G)

Aukera 18. 2017ko ebaluazioa

1HE. Sakontzea, erabiltzaileen bizi-baldintzak hobetuko dituen kalitatezko esku-hartze batean.

- **Emakumezko Etxegabeentzako Pisuak Proiektua**
- **III Eskaletasun Azterketa**
- **Kasuen gainbegiraketa,** deliberazio-metodoaren bidez
- Lanerako tresna berri bat: **Landa Egunerokoa**

Emaitzak:

- Egoera hobean edo egoera berean dauden erabiltzaileen ehunekoa: % 89
- Erabiltzaileek banako plan orokorraren baitan lortutako helburuen ehunekoa: % 72.9
- Erabiltzaileen batez besteko aurrerapena: 0.50
- Erabiltzaileen asebetetze-maila: 7.9 (7.9E eta 8G)



Argia Fundazioaren "Osabidean aurrera" VIII Jardunaldia.
"Inporta zaizkigunak" Bizitegi

*AIO: asebetetze-indize orokorra

2HE. Bultzada ematea salaketa- eta sentsibilizazio-ekintzei, gizarte justuagoa eraikitzeko bidean aurrera egiteko.

- **Antzerkia.** Ikastetxeetako ekintzak (5 jarduera; 230 ikasle), Muduko Jendeen Jaialdia, FAS zinekluba (1000 pauso) eta Homeless Film Festival (6 jarduera; 970 ikusle). AIO:8.6
- **World Ganchito.** Ikastetxeetako ekintzak (11 jarduera; 890 ikasle), UPV/EHU eta Deusto unibertsitateetako ekintzak (4 jarduera; 230 ikasle). Migrazioa, drogamendekotasunak, etxegabeak eta osasun mentala landu genituen. AIO: 9.38
- Beste sentsibilizazio-hitzaldiak (8 jarduera; 229 entzule).
- **Fair Saturday** Zirzira Ahots Taldearekin eta Ugaoko Abesbatzarekin (125 entzule baino gehiago).
- **Homeless Film Festival.** Ikastetxeetan (Artxandape, Begoñazpi eta Gabriel Aresti) eta UPV/EHUn egindako jarduerak (300 pertsona baino gehiago bertaratu ziren), Komunitate Antzerkiaren Topagunea, film laburren tailerra eta gala (300 pertsona baino gehiago). AIO: 9.34



Homeless Film Festival. Komunitate Antzerkiaren Topagunea

- **EAPNren partaidetza kongresu nazionala.** EAPN
- **Nazioarteko Egunak.** Etxegabeena, osasun mentala-rena eta pobrezia-rena.
- **Fundació Arrels** eta **Plataforma Norte** bisitatu genituen.

3HE. Komunitatea sustatzea, gizarteratze-prozesua garatzeko funtsezko bide gisa.

- **Partaidetza komunitarioa.** 15 jarduera egin ziren; auzoetako jaiak, elkarten azoka, Uribarri Eguna, haurren jardunaldiak, Osasunday...
 - Partaidetza-jarduerak egindako auzoen asebetetzea: 8
- **Berdintasuna sustatzea**
 - **Komunikazio Parekidearen Gida** diseinatzea
 - **Sexu-jazarpenaren eta generoagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa**
 - **Emakumearen Nazioarteko Eguneko** (martxoaren 8an) eta **Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko** (azaroaren 25ean) jarduerak.
 - **Antzerkiaren bidez sentsibilizatzea.** Zenbatu antzerki-taldeak "Antipatriarka" lana aurkeztu zuen.
 - **EAPNren emakumeen aldeko taldean partaidea izan ginen.** EAPN Euskadiren "Egoera kalteberan dauden emakumeekiko esku-hartzea" jarrera landu genuen.
- **Euskara sutatzea.**
 - Korrikan (*mannequin challenge* bat eginez) eta Euskararen Egunean parte hartu genuen.



Jazarpenaren aurkako protokoloa. Proiektuko lantaldea

- **Boluntarioratza sustatzea.**
 - Boluntarioen asebetetze-maila: 9
 - **Erabiltzaileak boluntario** proiektuan parte hartu genuen, ONCerekin elkarlanean.
 - **Ikastea eta zerbitzu ematea.** Begoñazpiko, Lauaxetako eta Artxandapeko ikasleekin lan egin genuen. Mugikorren eta euskararen gaineko presuntakuntza. 17 partaide. AIO: 8.14
- **Praktiketako pertsonak hartzea.** 14 pertsona hartu genituen (11E eta 3G). AIO: 9.21

4HE. Sendotzea, bai oinarri soziala eta bai barne egiturak, proiektuak epe luzera jarraipena izango duela ziurtatzeko. Langileen asebetetzea: 7.05 (6.7E eta 7.5G)


- Langileen, bazkideen eta boluntarioen **5 asanblada** egin genituen, eta 3 topaketa (Gabonetan, maiatzean eta inauterietan) Bizitegiko kide guztion artean (erabiltzaileak, bazkideak, langileak, boluntarioak eta praktiketako langileak).
- **Gaitasunak egiaztatzea.** Autoebaluazioak, ebaluazio-galdetegiak eta elkarrizketa pertsonalak egin genituen langileen % 100arekin.
- Laneko bizitza, familiako bizitza eta norberaren bizitza **bateragarri egiteko plana.**
- **Prestakuntza-plana.** 22 jarduera egin genituen, eta 88 pertaide izan ziren haietan (batez beste, 36 ordu pertsonako). AIO: 7



Bizitegiren asanblada

5HE. Finkatzea, bai bideragarritasuna eta bai jasangarritasun ekonomikoa.

- **Emaitza ekonomiko orekatua.** Sarrerak 3.630.629 eurokoak izan ziren, eta gastuak, berriz, 3.590.435 eurokoak.
- Zerbitzuen **okupazio-indizea** % 93koa izan zen.
- Bilboko Udaleko Etxegabeen **Udal Zerbitzua** esleitu ziguten, lizitazio bidez.



Zerbitzuen okupazio-indizea

6HE. Aurrera egitea, kudeaketa-eredu aurreratu eta berritzaile bati esker sektorean erreferentziazko erakunde izateko bidean.

- **Azterketak eta argitalpenak:**
 - Etxebizitza-bazterketa jasaten duten emakumeei buruzko azterlana.
 - Aktibazio soziokomunitarioa: inklusioa eta gizartearen kohesioa lortzeko gakoak. Zerbitzuan. SiiS
- **Ezagutzaketajardunbide onak partekatugentuen:** 8 jardunaldi, 13 hitzaldi eta prestakuntza-ekintza bat.
 - Etxegabeen egoerari buruzko II. jardunaldian: Baliabide espezifikoak
 - Etxebizitza-bazterketari buruzko Euskadiko III. jardunaldietan
 - Patologia dualari buruzko Euskadiko VIII. jardunaldietan: Komunitatean esku hartzea.
 - Gizarte-ekintzako jardunaldi teknikoetan. Boluntariorikaren kudeaketa. Bizkiako Foru Aldundia
 - Osasunaren Kudeaketa Aurreratua. Euskalit
 - Lan Komunitarioko Prestakuntza. Goiztiri
 - Argia Fundazioaren Osabidean aurrera VIII. parte-katze- eta sentsibilizazio-jardunaldian.
 - Pertsona ardatz duen arretaren jardunaldian. Kasuen kudeaketa jorratu genuen, eta 101 pertsona bertaratu ziren. AIO: 7.5
 - Komunitatearenganako konpromisoaren jardunaldian. Gizarte-ikuspegia, partaidetza komunitarioa, boluntariorikaren, Pausoka ekimena eta berdintasuna landu genituen. AIO: 7.6

Activación sociocomunitaria: claves para la inclusión y la cohesión social

Pablo Ruiz Errea
Bizitegi

Aitor Aresti
Bizitegi

Aitor Ipiña
Bizitegi
<aipina@bizitegi.org>

Gizarte eta gizarte-zerbitzuen eboluzioak sustatu du autonomia pertsonal eta parte-hartze soziala tresna duen enpleguan zentratutako inklusio soziala. Enplegurik aurkitu ez edo zailtasun handiak

La evolución de la sociedad y de los servicios sociales ha promovido una inclusión social centrada en el empleo como herramienta de autonomía personal y de participación social. Para

Aktibazio soziokomunitarioa



Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea. Euskalit: "Komunitatearenganako Konpromisoa"

Lankidetzaz hitzarmenak eta diru-laguntzak dira diru-sarrera nagusiak. Gastu nagusiak, berriz, baztertuta daudenei laguntzen dietenen soldatei, zerbitzuei, alokairuei eta azpiegituren mantentze-lanei dagozkie.

SARRERAK	€	%
Hitzarmenak eta diru-laguntzak	3.313.704	% 91
Erabiltzaileen ekarpenak eta donazioak	243.888	% 7
Finantza-sarrerak	336	% 0
Beste sarrera batzuk	33.125	% 1
Ekitaldia ekarritako diru-laguntzak eta donazioak	39.576	% 1
GUZTIRA	3.630.629	


GASTUAK	€	%
Langileen soldatak	2.823.551	% 79
Hornikuntza	145.163	% 4
Jarduerako beste gastu batzuk	529.484	% 15
Inbertsioen amortizazioa	90.400	% 3
Beste batzuk	1.837	% 0
GUZTIRA	3.590.435	

Kontuen enpresa ikuskatzaileak, Euskoaudit SAPk, egindako txostenean jasotzen denez, urteko kontu horiek zintotasunez erakusten dituzte Bizitegiaren ondarea eta finantza-egoera.



Gardentasuna. www.bizitegi.org

SARRERAK 2017



GASTUAK 2017

